Pausaran

Artzibarko Udalaren buletina
Boletín Municipal del Valle de Arce

4. Buletina. 2025eko abendua
4º Boletín. Diciembre 2025



Bizi berri bat Artziko Jauregirako 10-11

Una nueva vida para el Palacio de Arce 12-13

## Artzibarrek badu bere Ingurutxoa

Jokin Campión Gastón eta Begoña Almirantearena Larrañeta txistulariak elkarrizketatu ditugu: Ingurutxoaren musika sortu dute

15-18

## El Valle de Arce estrena Ingurutxo

Entrevistamos a los/las txistularis Jokin Campión Gastón y Begoña Almirantearena Larrañeta: han creado la música del Ingurutxo en auzolan.

## *Eskeleto zubia* zeharkatzeko prest

*Eskeleto zubia* berreraikitzeko lanak amaitu dira eta horrekin batera, Urdirotz eta Hiriberri lotzen dituen bidexka.

8-9

## El *puente Esqueleto* listo para cruzar

Han finalizado las obras de reconstrucción del *puente Esqueleto* y las del sendero que une Urdíroz con Villanueva.

## Etxebizitza alternatibak Arrietako Jauregian

Artzibarko Udalak Jauregia erosi du eta bideragarritasunari buruzko azterketa teknikoa egiten ari da

6-7

## Alternativas de vivienda en el Palacio de Arrieta

El Ayuntamiento del Valle de Arce *ha adquirido el Palacio y se está realizando el estudio técnico de viabilidad.*

# Berdintasun Zerbitzuaren kanpaina: “Gure herrietan hori (‘EZ’) da gertatzen”







*Azken hilabeteotan, Erroibar, Artzibar, Aezkoa eta Orotz-Beteluko toki entitateetako Berdintasun Arloak hainbat ekimen bultzatu ditu eskualdean berdintasuna sustatzeko eta indarkeria matxista prebenitzeko. Horien artean,* ***“Gure herrietan hori ‘EZ’ da gertatzen”*** *udako kanpaina nabarmentzen da, Pirinioetako bi berdintasun arloen kanpaina bateratua. Bere helburu nagusia da jai-guneetan eta espazio komunitarioetan indarkeria matxista ikusarazten eta prebenitzen hastea, egoera horien aurreko tolerantzian testuinguruak nola eragiten duen azpimarratuta.*

Kanpaina ikuspegi pedagogiko eta eraldatzaile batetik garatu da, landa-testuingurura egokituta. Kanpainaren abiapuntua da indarkeria matxista ez dela gertaera isolatu bat, ezta indarkeria erabiltzen duenaren erantzukizun esklusiboa ere, askotan normalizatu edo isiltzen diren dinamika sozial eta kulturalen emaitza baizik. Herrietan guztiok elkar ezagutzen dugu eta harremanak hurbilekoak dira, eta, hartara, eraso normalizatuenak zailagoak dira identifikatzen eta seinalatzen. Ohikoak diren iruzkin sexistak, hitzezko jazarpena edo larderia bezalako jokabideak minimizatu edo alde batera uzteko joera dago, esku-hartze eta erreakzio komunitarioa zailduz.

Proposamen grafikoak mezu horiek indartzen ditu: “EZ” lausotuta agertzen da, indarkeria minimizatu edo alde batera uzteko joera sinbolizatuz; sexismoa, sexu-indarkeria eta indarkeria matxista kontzeptuak, aldiz, argi eta garbi agertzen dira. “Argi ikusten duzunean, ezin duzu beste aldera begiratu” bezalako esaldiek kontzientziatik ekintzara igarotzera gonbidatzen dute, konpromiso komunitario eta eraldatzailea sustatuz.

**Zainketen diagnostikoaren emaitzak: nork zaintzen du eta nola**

Zainketei, erantzukidetasunari eta kontziliazioari buruzko lehen diagnostiko integrala egin da Erroibarren, Aezkoan, Orotz-Betelun eta Artzibarren, eta irailean hiru aurkezpen publiko egin ziren emaitzak aurkezteko. Diagnostiko horrek mugarri bat ezarri du orain arte ikusezina zen errealitate bati modu sistematikoan heltzean: nola zaintzen den, nork zaintzen duen eta zein baldintzatan. Diagnostikoak funtsezko hainbat alderdi nabarmentzen ditu:

**Oso populazio zahartua eta nahi gabeko bakardadean bizi dena:** Diagnostikoak susmatzen zen datu bat berresten du: zahartutako lurraldean bizi gara. Gure biztanleen herenak 65 urte baino gehiago ditu (Nafarroan, berriz, % 20k), eta gainzahartze-indizeak foru komunitatekoak baino handiagoak dira. Zahartze horri beste fenomeno bat gehitzen zaio: bakardadea. Zaintza behar dutenen bakardadea, baina baita zaintzaileena ere.

**Zaintza feminizatuak eta gutxi aitortuak:** Ikerketak lehendik sumatzen zena berresten du: zaintza lanak batez ere emakumeek egiten dituzte. Inkestan parte hartu duten pertsonen % 62k zaintzaile gisa definitzen du bere burua, eta talde horren barruan emakumeak dira zaintza konplexuenak beren gain hartzen dituztenak. Zama mentala beste datu aipagarri bat da: emakumeen

% 41ek dio etxean beti edo ia beti arduratzen dela guztiaz, bestela “beste inork ez duelako egingo”, gizonen % 15en aldean. Horrez gain, emakumeen % 74k etxeko eguneroko errutina antolatzen du, eta % 68k otorduak planifikatzen ditu; gizonak, berriz, gehienbat zeregin puntual eta praktikoez arduratzen dira.

**Kontziliazioa, oraindik ere lortzeke:** Kontziliazioa erronka partekatua da: inkestatutako hiru pertsonatik bik diote zailtasunak dituztela bizitza pertsonala, familia eta lana orekatzeko. % 35ek bakarrik dio lana eta familia erraz bateratu ditzaketela; gainerakoek, berriz, zailtasunez edo erregulartasunez egiten dute.

**Erantzukidetasuna, ardatz nagusia:** Diagnosiak adierazten du erantzukidetasunaren alorrean aurrera egin dela, baina oso poliki. Zenbait etxetan aldaketa txikiak sumatzen diren arren, datuek baieztatzen dute emakumeak direla planifikatzen, kudeatzen eta aurrea hartzen dutenak; gizonak, berriz, jarduera zehatz eta puntualez arduratzen dira

**Zerbitzuak eta baliabideak, argiak eta itzalak:** Zerbitzuen balorazioari dagokienez, indargunetzat jotzen dira etxez etxeko laguntza (ELZ), zahartze aktiboko programak eta adingabeak dituzten familientzako kontziliazio-baliabideak, pertsonak beren etxeetan egotea ahalbidetzen dutelako eta laguntza zehatzak ematen dituztelako. Oso positiboki baloratzen da, halaber, Eutsi zaintza kooperatibaren esperientzia, berrikuntza, gertutasuna eta tokian tokiko errealitatera egokitzeko gaitasunagatik nabarmendua.

Aldiz, adinekoen egoitzek balorazio okerragoa jasotzen dute. Txostenean hainbat arrazoi aipatzen dira: familia askok “etxetik urrun” dagoen baliabide gisa ikusten dute, landa eremuko errealitatera eta adinekoen nahietara gutxi egokitua, nahiago izaten baitute inguruan geratzea. Askotan, autonomia eta komunitate-loturak galtzea izaten da egoitzako esperientzia, gainera langilegoaren mugak antzeman dira, eta horrek eragina du jasotako arretan eta familien konfiantzan.

Horrez gain, hainbat egiturazko oztopo daude, eta horrek zaildu egiten du zerbitzuen erabilera, oro har:

- Dauden baliabideen ezagutza falta.
- Landa-inguruneko baliabideen eskasia, askotan hiri-logikarekin pentsatua baitaude.
- Garraioa ez da nahikoa, horrek joan-etorriak zailtzen ditu.

**Etorkizuneko erronkak:**

- Etxez etxeko laguntza zerbitzua eta eguneko zentroak pixkanaka zabaltzea.
- Komunitate-espazioak sortzea eta etxebizitza kolaboratiboak sustatzea.
- Zainketen inguruko prestakuntza eskaintzea eta sektore horretako lan-poltsa bat martxan jartzea eskualdean.
- Genero-erantzukidetasunean aurrera egitea, zaintzak emakumeen zeregin natural gisa ikus ez daitezen, eta familien, komunitatearen eta erakundeen arteko zeregin partekatua bihur daitezen.

Proposamen horiek guztiak egingarriak izateko, funtsezko elementu bat beharrezkoa da: garraioa. Gurea bezalako lurralde sakabanatu batean, autobus sare nahikorik eta mugitzeko baliabiderik gabe, edozein zerbitzuk —ona izan arren— irisgarria ez izateko arriskua du. Ezinbestekoa da zaintzaileak eta zainduak mugitu ahal izateko baliabideak izatea, eta herri txikien errealitatera egokitutako irtenbideak diseinatzea.

Diagnostikoak oroitarazten du politika publikoek landatartasun ikuspegia txertatu behar dutela: kontua ez da hirietan ongi funtzionatzen duten eredu berberak herrietan errepikatzea, baizik eta eredu horiek gure distantzietara, populazio dentsitate baxura eta herritarren arteko komunitatearen garrantzira egokitzea. Horrela bakarrik eraiki ahal izango dugu zaintza sistema justua, jasangarria eta gure bailaretako eguneroko bizitzatik benetan hurbil dagoena. Diagnostiko osoa hemen kontsulta daiteke:

DIAGNOSTIKOA

DIAGNOSTIKOAREN DATUAK:

Emakumeen **% 41ek**

**dio beti edo ia beti etxeko guztiaz arduratzen dela, bestela “beste inork ez duelako egingo”, gizonen % 15en aldean.**

Emakumeen **% 74k**

**etxeko eguneroko errutina antolatzen du eta %68k otorduak planifikatzen ditu; gizonak, berriz, gehiago arduratzen dira zeregin puntual eta praktikoez.**

Emakumeen **% 35ek**

**bakarrik diote lana eta familia erraz bateratu ditzaketela; gainerakoek, berriz, zailtasunez edo erregulartasunez egiten dute.**




# "En nuestros pueblos eso ('NO') pasa

*Es el lema de la primera campaña conjunta a nivel del Pirineo para la prevención de agresiones machistas en espacios festivos, desarrollada por los Servicios de Igualdad de Roncal, Salazar, Navascués y nuestro propio servicio que engloba Erro, Aezkoa, Oroz-Betelu y Arce.*

El objetivo principal ha sido generar materiales propios para sensibilizar, visibilizar y prevenir la violencia machista en espacios festivos y comunitarios. Parte de la base de que la violencia machista no es un hecho aislado ni responsabilidad exclusiva de quien la ejerce, sino el resultado de dinámicas sociales y culturales que muchas veces se normalizan o se silencian.

En los pueblos, donde todo el mundo se conoce y las relaciones son cercanas, las agresiones más normalizadas son más difíciles de identificar y señalar. Conductas como comentarios sexistas, acoso verbal o intimidación, que forman parte de dinámicas habituales, tienden a minimizarlo, haciendo más difícil identificar y dificultando también la intervención y la reacción comunitaria.

En la propuesta gráfica el "NO" aparece difuminado, simbolizando esa tendencia a minimizar, mientras que los conceptos de sexismo, violencia sexual y violencia machista se muestran de manera clara y visible. Frases como *"Cuando lo ves claro, ya no puedes ignorarlo"* invitan a pasar de la conciencia a la acción, promoviendo un compromiso comunitario y transformador.

**Resultados del diagnóstico de cuidados: quién cuida y cómo se cuida**

En septiembre se llevaron a cabo tres presentaciones públicas de los resultados del primer diagnóstico sobre cuidados, conciliación y corresponsabilidad en los valles de Erroibar, Aezkoa, Oroz-Betelu y Artzibar, marcando un hito al abordar de manera sistemática una realidad que hasta ahora permanecía invisible: cómo se cuida, quién cuida y en qué condiciones.

**Corresponsabilidad, el eje central:** El diagnóstico señala que la corresponsabilidad avanza, pero de manera muy lenta. Aunque en algunos hogares se perciben pequeños cambios, los datos confirman que son las mujeres quienes planifican, gestionan y anticipan, mientras que los hombres se ocupan de actividades puntuales y concretas.

**Conciliar, una asignatura pendiente:** La conciliación es un reto compartido por los dos géneros: dos de cada tres personas encuestadas dicen tener dificultades para equilibrar la vida personal, familiar y laboral. Solo un 35% asegura que puede conciliar con facilidad, mientras que el resto lo hace con dificultad o de forma regular.

**Servicios y recursos, luces y sombras:** En cuanto a los servicios, la valoración es desigual. Se reconocen como fortalezas la asistencia a domicilio (SAD), los programas de envejecimiento activo y los recursos de conciliación para familias con menores, porque permiten que las personas permanezcan en sus hogares y facilitan apoyos concretos. También se valora muy positivamente la experiencia de la cooperativa de cuidados Eutsi, que destaca por su innovación, cercanía y capacidad de adaptación a la realidad local.

No es tan positiva la valoración de las residencias de personas mayores. El informe recoge varias razones: muchas familias las perciben como un recurso poco adaptado a la realidad rural y a los deseos de las personas mayores, de permanecer en su entorno. La experiencia de ingreso se vive a menudo como una pérdida de autonomía y de vínculos comunitarios. Y se detectan limitaciones de personal cuidador, que también afecta a la calidad de la atención percibida.

A estas cuestiones se suman varias barreras estructurales que dificultan el uso de los servicios en general:

- Desconocimiento de los recursos existentes.
- Escasez de recursos en el medio rural, pensados en muchos casos con una lógica urbana.
- Transporte insuficiente, que complica los desplazamientos.

**Desafíos de futuro:**

- Ampliar progresivamente el Servicio de Atención a Domicilio y los centros de día.
- Crear espacios comunitarios y promover viviendas colaborativas.
- Ofrecer formación en cuidados y poner en marcha una bolsa de empleo local en el sector.
- Avanzar en corresponsabilidad de género, para que cuidar deje de ser visto como algo natural de las mujeres y se convierta en una tarea compartida entre familias, comunidad e instituciones.

Todas estas propuestas sólo serán posibles si se acompañan de un elemento clave: el transporte. En un territorio disperso como el nuestro, sin una red suficiente de autobuses ni recursos de movilidad, cualquier servicio —por bueno que sea— corre el riesgo de no ser accesible. Es imprescindible contar con fondos que garanticen el traslado de las personas cuidadoras y cuidadas, y diseñar soluciones adaptadas a la realidad de los pueblos pequeños.

El diagnóstico también recuerda que las políticas públicas deben incorporar la perspectiva de ruralidad: no se trata de replicar en los valles los mismos modelos que funcionan en las ciudades, sino de adaptarlos a nuestras distancias, a la baja densidad de población y a la importancia de la comunidad vecinal. Solo así podremos construir un sistema de cuidados justo, sostenible y verdaderamente cercano a la vida cotidiana de nuestros valles. Puedes consultar el diagnóstico completo aquí:

**DIAGNÓSTICO**

DIAGNÓSTICO EN DATOS:

El **41%**

**de las mujeres dice que siempre o casi siempre se encarga de todo en casa porque, si no lo hace, "nadie más lo hará", frente al 15% de los hombres.**

El **74%**

**de ellas organiza la rutina diaria del hogar y el 68% planifica las comidas, mientras que los hombres se concentran más en tareas puntuales y prácticas.**

Solo un **35%**

**asegura que puede conciliar con facilidad, mientras que el resto lo hace con dificultad o de forma regular.**





# Artzibarko Udalak Arrietako Jauregia erosi du etxebizitzak eraikitzeko

*Arrietako Jauregiaren bideragarritasunari buruzko azterketa teknikoa egiten ari dira, bizitegi-erabilerak zehazteko. Halaber, erabileraren eta kudeaketa-moduen inguruko jardunaldi batzuk aurreikusten dira, bizilagunei zuzenduak.*

Arrietako etxebizitza erostea Artzibarko Udalaren apustu garbia da, inguruan dagoen etxebizitza eskasiaren aurrean alternatibak eskaintzeko, harana biziberritzeko asmoz. Etxebizitza eskuratzea da identifikatutako erronka nagusietako bat, eta, beraz, erosketak lurraldearen eskaera bati erantzun nahi dio, lankidetza, trukea eta 'coliving'-aren bidez komunitatearen sorrera bultzatuz.

Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako Departamentuak 2024. urtean emandako diru-laguntza bati esker, Artzibarko Udalak etxebizitza erosi ahal izan du (115.515 €), eraikinaren planoak prestatu (9.950 €) eta bideragarritasun Azterketa Teknikoa egin (14.200 €).

**Nagoreko lurzatiak**

Nafarroako Gobernuaren legegintzaldi aldaketarekin, Nagoreko Nasuvinsako lau etxebizitza eraikitzeko proiektua geldituta dago. Une honetan, interesa duten pertsonek kooperatiba sortzeko aukera planteatu da, etxebizitza lurzoru publikoan eraikitzea finantzatzeko. Nasuvinsak lurzorua utzi eta obra-proiektua errazteaz gain, baldintza onuragarriak dituzten maileguak eskainiko lituzke.

Udalak interesa izan dezaketen herritarrei dei egiten die udalarekin harremanetan jar daitezen, lurzoru publikoari irtenbidea emateko.

## Lurraldea Okupatzeko Estrategia eta Eredua (LOEE)

Joan de urtetik, Artzibarko Udal Plan Orokorrean tresna bat lantzen ari gara, gure udalerriko lursail bakoitzean zer eraiki daitekeen edo zer jarduera ezar daitezkeen zehazteko, gure herrien hiri-kalitatea bermatu eta hobetzeko helburuarekin. Artzibarko 18 herritan bizilagunen proposamenak jasotzeko egin ziren ibilaldi parte-hartzaileen ondoren, lehen LOEE dokumentua egin da. Dokumentu hori jendaurrean egon da hilabetez, eta iradokizunak eta hobetzeko proposamenak ere jaso ditu. Dokumentuak udalerriaren lurralde-ereduaren oinarriak definitzen ditu, eta elementu egituratzaileak, asentamendu-sistema, etorkizuneko lurzoru-beharrak eta kudeaketa jasangarrirako orientabideak identifikatzen ditu. LOEE Udal Plan Orokorraren egitura-edukiaren parte da, baita haren funtsezko dokumentuetako bat ere.
Nuño Mardones Fernández de Valderrama, Diana Jurado Fernández eta Marta Cabezón Perez arkitektoek LOEE prestatu dute.

Udal Plan Orokorraren informazio guztia hemen kontsulta daiteke:

*https://www.valledearce.com/eu/plan-general-municipal/*

PLAN OROKORRA ›



# El Ayuntamiento del Valle de Arce ha adquirido el Palacio de Arrieta para construir viviendas

*Se está realizando el estudio técnico de viabilidad del Palacio de Arrieta para definir los usos habitacionales. También se prevén unas jornadas abiertas a la población para ver los usos y formas de gestión.*

La adquisición de la vivienda de Arrieta es una apuesta clara del Ayuntamiento del Valle de Arce por ofrecer alternativas ante la escasez de vivienda en la zona, con el fin de revitalizar el valle. El acceso a la vivienda es uno de los principales retos identificados, por lo que la compra quiere dar respuesta a una demanda del territorio, además de fomentar la cooperación, el intercambio y la creación de comunidad a través del 'coliving'.

Gracias a una subvención concedida en el año 2024 por el Departamento de Cohesión Territorial del Gobierno de Navarra el Ayuntamiento del Valle de Arce ha podido adquirir la vivienda (115.515 €), la redacción de levantamiento de planos del edificio (9.950 €) y la realización de Estudio Técnico de viabilidad (14.200 €).

**Parcelas de Nagore**
Con el cambio de legislatura en el Gobierno de Navarra, se ha paralizado el proyecto de construcción de cuatro viviendas de Nasuvinsa en Nagore. En estos momentos, se plantea la posibilidad de la creación de cooperativas por personas interesadas, de manera que ellas mismas financien la construcción de la vivienda en suelo público. Nasuvinsa cedería el suelo y facilitaria el proyecto de obra, además de ofrecer préstamos con condiciones ventajosas.

El Ayuntamiento hace un llamamiento a los vecinos y vecinas con interés en esta fórmula para que se pongan en contacto con la corporación y poder dar salida al suelo público.

# Aprobada la Estrategia y Modelo de Ocupación del Territorio (EMOT)

Desde el año pasado, se está trabajando en el Plan General Municipal del Valle de Arce, una herramienta que establecerá qué se puede construir o qué actividades se pueden implantar en cada una de las parcelas de nuestro municipio, con el objetivo de garantizar y mejorar la calidad urbana de nuestros pueblos.

Después de los paseos participativos que se hicieron en 18 pueblos del Valle de Arce para recoger las propuestas del vecindario, se ha elaborado el primer documento EMOT, que ha estado expuesto al público durante un mes y también ha recibido sugerencias y propuestas de mejora. Este documento define las bases del modelo territorial del municipio, identificando los elementos estructurantes, el sistema de asentamientos, las necesidades futuras de suelo y las orientaciones para su gestión sostenible. La EMOT forma parte del contenido estructural del Plan General Municipal y se integra como uno de sus documentos clave.

Los/as arquitectos/as Nuño Mardones Fernández de Valderrama, Diana Jurado Fernández y Marta Cabezón Perez han sido los encargados de elaborar la EMOT.

Toda la información relativa al Plan General Municipal puede consultarse en el siguiente enlace:

*https://www.valledearce.com/plan-general-municipal/*

PLAN GENERAL



# Eskeleto zubia prest dago berriro gurutzatzeko

Artzibarko Udalak bukatutzat eman ditu Urdirozko Eskeleto zubia berreraikitzeko lanak, Urrobi ibaiaren bi ertzak lotzen dituen funtsezko egitura. Abuztutik urriaren amaierara arte luzatu den jarduketa PSTD Pirineo Next Generation-en finantzaketa konbinatuari eta Nafarroako Gobernuak aurkeztutako bi aurrekontu-zuzenketei esker gauzatu da.

Berreraikitze-proiektua ondarea berreskuratzeko irizpide zorrotz baten arabera garatu da, zubiari jatorrizko estetika emateko asmoz. Esku-hartzea jatorrizko eraikuntzaren antzeko materialak erabiltzean eta falta diren zatiak lehengoratzean oinarritu da. Proposamen teknikoa, alde batetik, jatorrizko egituratik kontserbatzen diren aztarnetan oinarritzen da, eta, bestetik, inguruko zubi historiko gehienen geometria eta estiloarekiko analogian.

Horrela, obra zubiaren bizitza luzean egindako beste esku-hartze bat bezala ulertzen da, historian zehar mantentzen, konpontzen eta beharren arabera berreraikitzen den eraikuntza funtzional eta atenporalaren izaera berretsiz.

**Bidexken lotura**

Urdirozko zubiaren berreskurapenak berezko ondare-balioa izateaz gain, Artzibarko mugikortasunean eta turismo jasangarrian ere berebiziko garrantzia du. Izan ere, zubi horrek Urrobi ibaiaren ezkerraldeko herriak eta eskuinekoak lotzen ditu.

Azpiegitura hori Hiriberri eta Urdirotz lotzen dituen 7,2 km-ko bidexka berriaren egokitzapenaren parte da. Bidexka erabat prest dago, eta zubia ibarretik igarotzen diren hainbat ibilbide lotzeko funtsezko egitura da.

Gainera, zubi horri balioa emateak garai bateko meatze-industriaren garrantzia gogorarazten laguntzen du, egitura, seguru asko, Urrobiko parajean zegoen mineral-fabrikari lotutako azpiegitura logistikoaren parte izan baitzen.

# Bukatu dira Eurovelo egokitzeko lanak

Artzibarko Udalak Eurovelo 3 bizikleta bidea egokitzeko eta hobetzeko lanak burutu ditu, udalerritik pasatzen den zatian. Malda handieneko zatiak optimizatzea izan da jarduera nagusia, erabilera publikorako azpiegituraren segurtasuna eta mantentze-lan egokiak bermatuz.

Egindako esku-hartze teknikoen bitartez, bidearen egonkortasuna eta funtzionaltasuna ziurtatu nahi dira epe luzera. Hobekuntzen artean hauek nabarmentzen dira: lehendik dauden drainatze-sistemak optimizatzea eta sakonuneak instalatzea, arrisku handieneko zatietan azaleko jariatze-ura modu eraginkorrean bideratzeko; zorua konpontzea eta errodadura-geruzan hautemandako akatsak zuzentzea, bideko hainbat puntutan; zementuzko egonkortze-tratamendua aplikatzea, bide-zoruari erresistentzia handiagoa emateko.

Obraren kostu osoa 214.337,63 €-koa izan da, eta Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planeko (PSTD-BIZIKLETA-BIDEAK) funtsen bidez finantzatu da, Europako Batasuna Next Generationek eta Nafarroako Gobernuak finantzatuta.



# El puente esqueleto ya está listo para volver a atravesarlo

El Ayuntamiento del Valle de Arce ha dado por finalizadas las obras de reconstrucción del puente esqueleto de Urdíroz, una estructura clave que comunica ambas orillas del río Urrobi. La actuación, que se ha extendido desde agosto hasta finales de octubre, ha sido posible gracias a la financiación combinada del PSTD Pirineo Next Generation y dos enmiendas presupuestarias aportadas por el Gobierno de Navarra.

El proyecto de reconstrucción se ha desarrollado bajo un riguroso criterio de recuperación patrimonial, buscando devolver al puente su estética original. La intervención se ha basado en la utilización de materiales similares a la construcción original y en la restitución de las partes que faltan. La propuesta técnica se fundamenta, por un lado, en los restos que se conservan de la estructura original y, por otro, en la analogía con la geometría y el estilo de la mayoría de los puentes históricos de la zona.

De esta manera, la obra se entiende como una intervención más en la larga vida del puente, reafirmando su carácter de construcción funcional y atemporal que se mantiene, se repara y se reconstruye a lo largo de la historia según las necesidades.

**Conexión de senderos**

La recuperación del puente de Urdiroz no solo tiene un valor patrimonial intrínseco, sino que también desempeña un papel crucial en la movilidad y el turismo sostenible del Valle de Arce, que a través de este puente comunica los pueblos de la margen izquierda con los de la derecha en el río Urrobi.

Esta infraestructura forma parte del acondicionamiento del nuevo sendero de 7,2 km que conecta los núcleos de Villanueva de Arce/Hiriberri y Urdiroz. El sendero ya está completamente listo, y el puente se convierte en un nexo fundamental que enlaza diferentes rutas que transcurren por el valle.

Además, la puesta en valor de este puente contribuye a recordar la importancia de la antigua industria minera en la zona, ya que la estructura formó parte con alta probabilidad de la infraestructura logística asociada a la fábrica de mineral situada en el paraje de Urrobi.

# Finalizadas las obras de acondicionamiento en la Eurovelo

El Ayuntamiento del Valle de Arce ha culminado las obras de acondicionamiento y mejora de la vía ciclable EuroVelo 3 a su paso por el término municipal. La actuación se ha centrado principalmente en la optimización de los tramos con mayor pendiente, garantizando la seguridad y el correcto mantenimiento de la infraestructura para el uso público.

Las intervenciones técnicas realizadas buscan asegurar la estabilidad y funcionalidad de la vía a largo plazo. Las mejoras acometidas han incluido: optimización de los sistemas de drenaje existentes y la instalación de badenes para encauzar de forma efectiva la escorrentía superficial en los tramos más expuestos; reparación del firme y corrección de los defectos detectados en la capa de rodadura en diversos puntos de la vía; aplicación de un tratamiento de estabilización con cemento para dotar al firme de una mayor resistencia.

El coste total de la obra ha ascendido a 214.337,63 € que se ha financiado en su totalidad con Fondos del Plan de Recuperación, transformación y resiliencia (PSTD-VÍAS CICLABLES) financiado por la Unión Europea Next Generation y el Gobierno de Navarra.



JOSEMI LEACHE ARISTU

*Artziko Jauregiko kudeatzailea*

# “Bailarako eragile bat gehiago izan nahi dugu eta ingurua dinamizatu”

*Josemi Leache Aristu, Agoizko bizilaguna, erronka berri baterako prestatzen ari da: azkenaldian zaharberritutako Artziko Jauregiaren kudeaketa. Jauregian bertan elkartu gara berarekin, leku esanguratsu honi bizitasuna emango dioten xehetasunak amaitzen dituen bitartean. Berrogei urteko enpresa-ibilbide luzea du, Construcciones Leache eta Tejados Aoiz enpresetako bazkide eta langilea, eta azken urteetan Agoizko Okindegia eta Ollokiko Taberna-Jatetxea kudeatu ditu. Orain, ilusio eta ikuspegi dinamizatzaile berarekin, Artziko Jauregiaz arduratuko da, Artzibarko garapen eta dinamizaziorako funtsezko eragile bihurtzeko.*

**Artziko Jauregiaren aukera ezagutu zenuenean, hasieratik izan zenuen argi kudeaketara aurkeztuko zinela?**
Artziko Jauregiaren zaharberritzea gertutik jarraitu dut duela pare bat urtetik. Aukera asko zituen eraikin bat zela ikusi nuen, beraz, udaberri honetan lehiaketara atera zutenean, aurkeztu egin nintzen eta esleitu egin ziguten.

**Nola ari zarete planteatzen kudeaketa eta zer proposamen egingo dituzue Jauregian?**
Jauregiaren kudeaketa haranera itzultzea nahi dugu: bizi diren, bizi izan diren eta bisita gaitzaketen pertsonengana. Guk bailarako beste eragile bat izan nahi dugu.

Alde batetik, beheko solairuan kafetegia dago eta bertako produktuen aukeraketa bat salgai; lehen solairuan, jantokia eta ekitaldiak egiteko bi areto zabal daude. Kultur, kirol eta bestelako ekitaldiak egin nahi ditugu, mugimendua eta komunikazioa sor dadin.

**Jauregia bidegurutze batean dago. Nola baloratzen duzu kokapena?**
Oso kokaleku estrategikoan dago. Ni Agoizkoa naiz, baina niretzat, nire eremua Agoitzetik Aezkoaraino doa. Artzibar oso polita da, Artziko Jauregian zaharberritze lan ederra egin da eta orain bizitasuna eman behar zaio.

**Udan irekitzea aurreikusita zegoen, baina atzeratu egin da. Nolakoa izan da prozesua?**
Prozesua uste baino zertxobait zailagoa izan da. Abuztuaren 1ean irekitzea aurreikusita zegoen, baina, niri ez dagozkidan arrazoiengatik, ezin izan da ireki. Oraindik gauza batzuk bukatu behar dira. Falta diren gauzen artean, Jauregira datorren jendearentzako aparkalekua eskatu dugu, une honetan dagoen bakarra bainu-guneena baita eta ez baita nahikoa.

**Atzerapena gorabehera, egun jakinetan ireki duzue (kultur ekitaldiak eta Artzibarko Eguneko bazkaria). Nolako harrera izan duzue?**
Artzibarko Udalak eskatu digunean ireki dugu eta ahalik eta ondoen egiten saiatu gara, nahiz eta zerbitzu guztiak ez izan. Harrera oso ona izan da, egun puntualak izan badira ere. Egia da, halaber, ez garela arrotzak; bailarako pertsonen % 80 ezagutzen dut. Gainera, hilabete hauetan guztietan Udalarekin izan dugun hartu-emana oso ona izan da, ongi moldatu gara.

**Bainu-guneek jende asko erakartzen dute udan, eta, orain, Jauregia irekita dagoela, are mugimendu handiagoa espero da, ezta?**
Bai, bainu-guneetara kanpoko jende asko etortzen da, baina oso bezero desberdinak dira, nire ustez, Jauregikoa izan daitekeenarekin alderatuta. Profil desberdinak dira, eta pentsatu behar dugu nola eman zerbitzua bainu-eremuetara doaze-

nei, Jauregira ekitaldi batera datozenei edo ibilbide bat egitera datorren jendeari.

**Jauregiaz gain, bainu-eremuak ere kudeatzeko interesa adierazi duzu. Zertan dago prozesu hori?**
Oraindik ez da atera bainu-guneak kudeatzeko lizitazioa, baina urtea amaitu baino lehen aterako da eta nire asmoa da aurkeztea, Artziko Jauregiaren eta bere inguruaren kudeaketa integrala egiteko. Zehazteke dago, baina kudeaketaren barruan sartuko lirateke Jauregiaren eta Ermitauaren Etxearen eta inguruko berdeguneen mantenua eta kontserbazioa, baita bainu-eremuen eta turismo-informazioko gunearen kudeaketa ere. Kudeaketarik onena hemendik bertatik egin daitekeena dela uste dut.

**Hori guztia aurrera eramateko talde on bat duzula ulertzen dut.**
Familia-enpresa gara; une jakin batzuetan, familiako edonork laguntzen ahal digu. Modu egonkorragoan, ni, Maite Gárriz Leache iloba eta Katrin Leache Gárriz alaba egongo gara. Bailarako eta inguruko jendea ere nahiko nuke kudeaketa integral guztirako, esleitzen badidate behintzat. Behar diren gremio guztiak edukitzeaz ari naiz: igeltseroak, iturginak, lorezainak, edo baita sare sozialez arduratuko den norbait ere. Hemengo jendea bada, askoz hobeki. Ostalaritzaren kudeaketarako badugu esperientzia eta talde bat gutxi gorabehera prest

> “Bailarako jendeak edozein ospakizun egiteko hemen bere lekua duela zabaldu nahi dugu”

**Nolakoak izango dira irekitzeko ordutegiak?**
Ordutegiak udan eta neguan diferenteak izango dira. Neguan, hasiera batean mugimendu handirik egongo ez bada ere, egon dadin saiatuko gara. Asteartetik igandera irekiko dugu, asteartetik ostegunera ordutegi murritzagoan (9:30-20:00) eta ostiral eta larunbatean afariak amaitu arte.



Oraingoz, asteburuetan menuak eta afariak egongo dira, eta igandetan 20:00etan itxiko dugu. Ordutegia beharretara egokitzen joango gara, ikusiko dugu gehiago murrizten dugun edo horrela mantendu dezakegun.

